

# Berrigara




## *Orfeoia 75 urte*



**MARKIEGI**  
**autoak**

Leizeaga 1 (San Lorenzo Industri Poligonoa)  
4870 BERGARA (Gipuzkoa) Tf 943 76 35 09

**BIGARREN ESKUKO**  
**AUTOAK**



# ad LAGUN GARAJEA



HELBIDE BERRIA Santalaitz 3an (IAT/ITVren ondoan) Tf. 943 76 11 20

Mekanika orokorra • Autoen konponketa • IATrako prestaketa • Pneumatikoak • Direkzio alineazioa



## GUIPUZCOANA

*Paketeen garraio eta banaketa*

### BERGARA

**Tf.: 76 36 42**  
Faxa: 943 76 54 25  
San Juan auzoa z/g  
20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU  
EGUNEROKOA

- Elkarte europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniarra eta
- Hungariara



# Elkar entzuketa

Xabier Azkoitia / Apaiza

**O**rdu txikietan jarri naiz traman-kulu honen aurrean. Iluntasuna nagusi, etxerantz doan koxe baten zarata entzuten da kalean, ixiltasuna entzuten da. Gezurra dirudi, goizeko laurak dira eta gaueko hamarretan hasitako elkarrizketari amaiera eman berri naiz. Sei pertsona, sei orduz hitz eginez eta elkar entzun diogunaren itxaropenaz.

Ez dut irratia piztu nahi, zeren ziur naiz hor egongo dela norbait, zelatan, esan, esan, eta esateko dituen guztiak esateko prest. Ez dut telebistaren boitoia sakatu nahi, zeren hor ere, ziur naiz, norbait ere izango dudala zain, oraingo honetan irudi eta guzti, botatzeko dituen guztiak botatzeko prest.

Pentsatzen hasia naiz, neronek ere ez al dudan gaur gauean berdina egin: Pirinioak, Petretxema, elurra, itsasoa, medusak, hauteskundeak, alderdi politikoak, epaileak, Clinton, tregua, euskara, unibertsitatea, astebukaerako manboak... Ah ze lasaitasuna! Aditu, gutxienez, esandakoak aditu ditut! Gai-

nera, mahai borobil baten inguruan! Aurrez aurre! Beraz, lasai joan naiteke ohera, elkarrizketa ona egin dugu, denok hitz egin dugu. Denok esan ditugu esateko genituenak. Batzuk luzeago aritu gara, noski; aldiz, besteak, ez hainbeste. Baina, esan, isildu gabe esan ditugu esateko denak.

Eta, entzun? Elkar entzun al diogu elkarri? Nork entzun dio besteari?

Maila guztietako gatazkak bakarrik garaitu daitezke, gatazkan aurkitzen direnen artean elkar entzuteko borondatea badago eta, nik gogoratzen dudanez, herri honetan denok izaten dugu esateko zerbait"

*"Maila guztietako gatazkak bakarrik garaitu daitezke, gatazkan aurkitzen direnen artean elkar entzuteko borondatea badago eta, nik gogoratzen dudanez, herri honetan denok izaten dugu esateko zerbait"*

tea badago eta, nik gogoratzen dudanez, herri honetan denok izaten dugu esateko zerbait, ez baikara esatari makalak! baina inork edo oso gutxi aldarrikatzen dute besteei entzutearen beharra.

Entzuteko ahalmena ez dutenei gor deitzen diegu eta esaten dute hauek gorak direla sortzen duten isolamenduagatik, harremanetarako dakartzan zailtasunengatik. Hau da pertsona batek izan dezakeen gizarteratzeko zailtasun handienetako bat. Amaitzear dagoen idazki honen bitartez, hori da eskatu nahi niokkeena lerro hauen irakurleei: ahal izanez gero, orain arte gure izenean esan eta esan ibili diren guztiei eskatzea (denak gure izenean hitz egiten omen dutenez), oraingo honetan esaten bakarrik saiatu beharrean elkar entzuten ere saia daitezela.

Denontzat lekua izango duen gizar-te bat eraikitzeke aukera badugu, entzutea, hau da, besteak dioena entzuteko prest egotea, izan dadila zutabeetako bat gutxienez. B

■ barruan



**Luis Mari Oregi**

Dominikoa

*"Hezkuntza eta osasun mailan lan asko egiteke dago Dominikar Errepublikan"*

8. orrialdean.



**Iñigo Zaitegi**

BKEko presidente izandakoa

*"Presidente berriak esan zituen gauza batzuk min egin egin zigun"*

22. orrialdean.



**Jesus Bea**

Idazlea

*"Normalean gaez idazten dut: bakarrik nagoenean, eta inspiratzen naizenan"*

26. orrialdean.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1968.** Irailaren 29an Bergarak Gipuzkoako herri-arteke lehen pilota txapelketa irabazi zuen. Finala Azkoitian jokatu zen eta Bergarak Urretxu hartu zuen mendean. Bergarako ordezkariak: infantiletan, Gonzalez eta Arazkonaga; jubeniletan, Altuna eta Gallastegi eta nagusietan, Garitano eta Etxaniz.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1788.** Irailaren 29an Tomas Zumalakarregi jaio zen Ormaiztegin.

**1936.** Urriaren 1ean Madrilgo Korteek Euskal Estatutua onartu zuten.

**1977.** Irailaren 29an, Egin egunkaria kaleratu zen.

### MUNDUAN GERTATUA

**1915.** Irailaren 30ean lehen irrati transmisioa egin zen New York-en.

### zozketak

#### BONO LOTO

##### Eguakitza 25

3-30-31-35-40-49 (osag.29/er.0)

##### Astelehena 28

1-3-12-14-15-38 (osag.42/er.8)

##### Martitzena 29

9-15-23-38-42-47 (osag.49/er.5)

##### Eguaztena 30

12-16-25-31-45-48 (osag.11/er.1)

#### PRIMITIVA

##### Zapatua 26

12-15-31-33-34-45 (osag.26/er.7)

##### Domeka 27 Gordo

5-8-33-35-37-41 (osag.39/er.6)

#### ONCE

**Eguakitza 25:** 65.773 (K. seriea: 015)

**Astelehena 28:** 49.275

**Martitzena 29:** 12.833

**Eguaztena 30:** 23.930

#### BESTE BATZUK


##### Angiozarko jaiak

Lisboara bidaia: 3.009

(agertuko ez balitz: 4.422)

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zerua estalita izango dugu ia asteburu osoan zehar. Eguakitzean, gainera, euria egin dezake eta gau partean ekaitza; zapatuan eta domekan euri arriskua txikiagoa izango da. Haizeak ipar mendebaldetik joko du batez ere.

## Ilargiaren aldiak



Ilgora: irailak 28



Ilbete: urriak 5



Ilbehera: urriak 12



Ilberri: urriak 20

## Eguzkia

Domeka, urriak 4



Sortu: 08:16



Gorde: 19:54

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 24</b>	25	13	5,4
<b>Eguakitza 25</b>	22	14	0,3
<b>Zapatua 26</b>	21	14	0,7
<b>Domeka 27</b>	22	14	2,4
<b>Astelehena 28</b>	21	14	-
<b>Martitzena 29</b>	24	12	25,9
<b>Eguaztena 30</b>	21	12	11,1

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Akordua euki

Zerbaitetarako oroitzapena izan. Gehienetan zerbait egiteko burutazioa, detailea.

- Errittik pasau eta ama bisittatzeko akordua be etxuan euki.

- Erromara joan zanian postal bana bialtzeko akordua euki zeban.



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Hortzak osasuntsu

Laster batean erradiazioen menpe egoteari utziko diogu dentistarenera joaten garenean, *Hagin Erradiografia Konputertuari* (CDR) esker, hain zuzen. Sensore elektronikoa darabilen erradiografia sistema bat da, informazioa ordenadore batera bidaltzen duena. Sistema honekin gaisoak X izpi erdiak baino ez ditu jasoko.

## Farmaziak

### Eguakitza 2:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Zapatua 3:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Domeka 4:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Astelehena 5:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Martitzena 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguaztena 7:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguena 8:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

## Ogia

Domeka 4: Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitela	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 65

# zorion agurrak



**Iker Gonzalez**  
Irailaren 25ean  
9 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**David Fresno**  
Abuztuaren 14an  
11 urte. Zorionak!  
Familiakoak  
eta lagunak.



**Kepa Etxaniz**  
Urriaren 5ean  
5 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Mariñe Etxaniz**  
Irailaren 22an  
2 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Lide Oregi**  
Irailaren 23an  
17 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Angeles Larrañaga**  
Irailaren 28an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



**Ainhoa Goienetxea**  
Urriaren 5ean  
6 urte. Zorionak!  
Etxeko eta lagunak.



**Alen Irureta**  
Urriaren 4an  
6 urte. Zorionak!  
Aita, ama  
eta lagunak.



**Mari Jose Molina**  
Urriaren 4an  
28 urte. Zorionak!  
Lagun bat.



**Javier Centeno  
eta Irene Vila**  
Urriaren 8an 10 urte  
ezkondu zirela.  
Zorionak! Marina.



**Jon de Pedro**  
Irailaren 23an  
22 urte. Zorionak!  
Jasone.



**Igor Olañeta**  
Urriaren 1ean  
4 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Ainhoa Dominguez**  
Urriaren 5ean  
11 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Amaia Velez de Mendizabal**  
Irailaren 19an  
15 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.



**Marina Retolaza**  
Urriaren 3an  
6 urte. Urte  
askotarako! Imanol,  
aita eta ama.



**Olaia Carmona**  
Urriaren 1ean  
5 urte. Zorionak!  
Familiakoak  
eta Sara.



**Kristina Etxeberria**  
Urriaren 6an  
4 urte. Zorionak!  
Gurasoak  
eta Ainhoa.



**Julen Larrañaga**  
Urriaren 6an  
2 urte. Zorionak!  
Mireia  
eta gurasoak.



**Ainhoa Franco**  
Urriaren 7an  
3 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta Aitor.



**Ainara Manso**  
Irailaren 14an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.




**Mireia Iturrospe**  
Irailaren 29an  
7 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Joseba**  
Urriaren 6an  
2 urte. Zorionak!  
Patty.



**Endika Cabo**  
Urriaren 1ean  
urtebete. Zorionak!  
Gurasoak  
eta auzolagunak.



**Mitch**  
Urriaren 4an  
16 urte. Zorionak!  
Koadrilakoak.



**Ainhoa Pardina**  
Urriaren 2an  
urtebete. Zorionak!  
Etxekoak.



**Leire Yera**  
Urriaren 4an  
7 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Zuriñe Larrañaga**  
10 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Maria Cordero**  
Urriaren 4an  
4 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Unai Agirrezabal**  
Urriaren 5ean  
5 urte. Zorionak!  
Luis Mari, Ezoz  
eta Mikel.



**Maite Unanue**  
Urriaren 2an  
28 urte. Zorionak  
koadrilako txikiari!  
Amaia eta Nerea.



**Jone Albeniz**  
Irailaren 29an  
6 urte. Zorionak!  
Etxekoak.



**Aquilino Garcia**  
Urriaren 2an  
49 urte. Zorionak!  
Arreba eta  
familiakoak.



**Nerea Gomez**  
Urriaren 1ean  
12 urte. Zorionak!  
Gurasoak  
eta ahizpa.



**Susana Gomez**  
Urriaren 13an  
15 urte. Zorionak!  
Gurasoak.



**Maitane Muruamendiaraz**  
Irailaren 30ean  
urtebete. Zorionak!  
Julen, aita eta ama.



**Ane Miren Alberdi**  
Urriaren 1ean  
urtebetetzea.  
Zorionak! Lagunak.



**Goiz-Eder Ormazabal**  
Urriaren 6an  
19 urte. Zorionak!  
Tia Pepa eta Nerea.



**Jabier eta Iolanda**  
Zorionak  
zuen urtebetetzean!  
Familiakoak.



**Miriam Boizas**  
Urriaren 5ean  
5 urte. Zorionak!  
Gurasoak, amama  
eta familiakoak.



**Nekane Zapata**  
Irailaren 30ean  
6 urte. Zorionak!  
Familiakoak.



**Dionisio Gomez**  
Urriaren 13an  
urtebetetzea.  
Zorionak! Emaztea  
eta alabak.

Norbait zoriondu nahi baduzu, ekarri bere argazkia BERRIGARARA (Errotalde jauregia) lehenbailehen (martitzena baino lehen bada hobe).

## ESKELA

### Fernando Garcia Garcia

Valencian (Venezuela) hil zen 1998ko uztaillean,  
62 urte zituela.

*Bere oroimeneko meza urriaren 4an, domeka,  
12:30etan San Pedron.*

*Mila esker bertaratuko zaretenoi  
familiaren izenean.*



## jaioetakoak

**BERGARA**  
**Oihane Larrion Moro**  
Irailak 22

## MUSIKA

► **DM3 eta Purr** bihar, zapatua, 22:30etan Jam-en.

► **Iñaki Salvador Trio** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

► Pol-Pol. **Coag** taldea eguenean, hilak 8, 23:00etan. Eguakitzean, ordu berean, hip-hop jaialdia **Jousilouli** taldearekin.

## ERAKUSKETAK

► **Seilu eta Diru** Bildumazaleen Elkartearen erakusketa Kultur Etxean, domekara arte.

► **Pello Alberdiren** margoak Eibarko Portalea aretoan, martitzenera arte. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta astebarruan 19:00etatik 21:00etara.

## IKASTAROAK

► **Islada bideo tailerrak** antolatuta, edizio ikastaroa (50 ordu) izango da urriaren 23tik azaroaren 27ra. Argibideak, Errotalde Jauregian: 943 77 91 58.

► Moises Aspiazu dantza taldeak 4 urtetik gorako umeei zuzenduta, **fandango eta arin-arin** ikastaroak emango ditu astelehentik aurrera. Astean bi egunez helduentzako ikastaro-

ANTZERKIA

## Comicos muy peligrosos

**Noiz: zapatuan, 22:30etan Novedadesen Sarrerak: 800 pezeta (500 Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin).**

Gasteizko Ñake antzerki taldeak "Comicos muy peligrosos" bere azken lana eskainiko du bihar, zapatua, Bergaran. Eloi Beatok eta Josean De Miguelek osatutako bikotea aski ezaguna da dagoeneko gure artean. Antzerkirako sortutako lanez gain ("El undecimo, no estorbar", "Fortunato ta Jacinto, en una de romanos" edota "Pocos y mal avenidos"), zinean edota telebistan ere lan egin izan dute, besteak beste, "Alas de mariposa" eta "Todo por la pasta" filmeetan edota ET-Brako egin zuten "¡Que horas son estas!" umore saioan. Novedadesera ekarriko duten lana joan zen urteko maiatzean estrainatu zuten Gasteizen eta ordutik toki asokotan antzeztu dute.

Bere lan guztietan gertatzen den moduan umorea da ikuskizuharen ardatza. Jon-txu J. "Koyote" musikoaren zuzeneko laguntzarekin, gi-

zarteko gaietan oinarritu dira komiko gasteizarrak eta, batez ere, injustizia eta giza esplotazioaren inguruko egoerak landu dituzte. Horrela, ikuspuntu garratz eta ironiko batetik, enpresa gizonak, politikoak, sindikatoak, futbol entrenatzaileak, apaizak edota publizitate inguruko jendea aurkeztuko digute hainbat sketchetan. Ñakekoek hitz jokoetarako duten abilezia erakusten dute berriz ere, umore zentzuga-bea eta poesiaren artean. Erritmo biziko antzezlanak da eta aktoreen helburua boterea dutenen pertsonen barre egitea izan da; "gaur egun egiten dena baino umore intelijente eta kritikoago bat dagoela erakusten saiatzen gara". B



Josean De Miguel eta Eloi Beato, Ñake antzerki taldeko bikotea.

ak ere izango dira. Argibideak: 943 76 15 40.

► Udalak 18 urtetik gorako emakume langabetuei zuzendutako **diseinu eta patroigintza** ikastaroa antolatu du, urriaren 26tik martxoaren 30era bitartean.

Izen-ematea Udaleko Enplegu Zerbitzuan urriaren 9ra arte. 943 77 91 65.


## LEHIAKETAK

► **Gazteak eta komunikazioa XI. Argazki**

**Lehiaketa.** Lanak bidaltzeko epea urriaren 9an bukatuko da. Argibideak Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzuan: 943 77 00 65.

► **Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren Sariketa.** Aurtengo gaia

Eguneroko menuak, parrilan egindako erreki bereziekin.



kintadak, senide arteko bazkariak, koadrilak, despedidak...

**DANTZARAKO PISTA ETA GUZTI!**

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Enkarguak hartzen dira

**M**

**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

librea izango da eta munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkeztu ahal izango dira. Testuen luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. 200.000 eta 100.000 pezeta-ko bi sari banatuko dira. Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Argibideak: 943 77 12 28.

## DEIAK

► **Zikiro-jatea** herri bazkaria urriaren 10ean Basalgoko elkartean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Pol-Polen edo Artatsen martitzena baino lehen.

► **Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa.** Ipuinak (euskaraz zein gazteleraz) 15 orri-arteak izango dira. Aurkezpen-epea urriaren 30a. 500.000 pezeta-ko sari bana eta 200.000 pezeta-ko bina akzesit izango dira. Lanak ondoko helbidera bidali beharko dira: Bilboko Udala. Kultura eta Turismo Saila, "Gabriel Aresti XVI. Ipuin Lehiaketa". Ernesto Erkoreka plaza, z/g. 48007 Bilbo.

► **Jubilatuaren mendi irteera** Urbiara eguaztenean, hilak 7, 8:30etan bus geotokitik. 943 76 21 40.

## OHARRAK

► **Euskal Herritarrok** taldearen aurkezpena eguene-

an, hilak 8, 19:30etan UNEDen.

► **Xipizarok** ikasturte berriari hasiera eman dio jadanik, 3 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutilentzat ludoteka zabalduz, astebarruan eta zapatutan. Argibideak 943 76 23 76 zenbakian.

► **Orfeoaren** historiari buruz idatziko den liburuan Orfeoikide izan diren guttien izenak jaso nahi dira. Beraz, Orfeoitik pasatako edota hauen familiei, urrian zehar, Kultur Etxean, Irrintzin, Deba Garaia inmobiliarian edo Antxonin izena emateko eskatzen zaie.

## KINTADAK

► **1936an** jaiotako bazkaria urriaren 4an Antxonin. Aurretik, 12:30etan, meza izango da Santa Marinan. Izen-ematea Eusebio IIan edo Antxonin bertan.

► **1959an** jaiotako afaria urriaren 24an Antxonin jate-txean. Izen-ematea Goxo-Tokin edo Antxonin.

► **1955ean** jaiotako afaria urriaren 31n Antxonin. Izen-ematea bertan.

► **1940an** jaiotako afaria azaroaren 7an Antxonin jate-txean. Izen-ematea: 943 76 34 36 (Mari Tere) eta 943 76 45 75 (Begoña).

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### City of angels

Eguakitza: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

##### En la puta calle

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Seis dias, siete noches

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

##### Cha cha cha

Eguena: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Phantoms

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

##### Mr. Magoo

Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

#### EIBAR. Rialto

##### Un amor opor descubrir

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

##### City of angels

Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:00.

##### A tumba abierta

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### AZKOITIA. Baztortxo

##### El laberinto rojo

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

##### Arma letal 4

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

#### ONATI. Santana

##### El gran Lebowski

Eguena, zine-kluba: 20:00.

### CITY OF ANGELS

**Zuzendaria:** Brad Silberling.

**Aktoreak:** Nicolas Cage, Meg Ryan, Dennis Franz.

Wim Wenders zuzendari alemaniarak zuribeltzean errodututako *Cielo sobre Berlin* filmearen bertsio berria egin dute estatubatuarrek, talde eta kantari ezagunen abestiak tartekatuz. Aingeruetan sinisten ez duen neska bat (Meg Ryan) erabat maiteminduko da aingeru itxura guztia duen gizon batekin...



### EN LA PUTA CALLE

**Zuzendaria:** Enrique Gabriel.

**Aktoreak:** Ramon Barea, Luis Alberto Garcia, Patricia Garcia Mendez.

Langabezian dagoen elektrizista batek (Ramon Barea), bere familia herrian utzi eta Madrilera lan bila joango da. Laister, duen diru apurra gas-tatu eta... kale gorrian geratuko da. Kubatar batekin elkar-tu eta bieker era guztietako egoerak jasan beharko dituzte aurrera egiteko. Iaz Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailean aurkeztu zen filmea.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Izena ematean  
**%10EKO BEHERAPENA**  
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

**Estatuko hainbat tokitan lanean izan ondoren, teologia eta filosofia ikasketak egindako bergarra dominiko honek 1980an Dominikar Errepublikara alde egitea erabaki zuen. Hango dominikoen nagusia da gaur egun eta Seybo herrian ari da lanean. Udalak 1,2 milioi pezetako dirulaguntza eman dio Accion Verapaz dominikoen ONGari.**

**G.** Zelako lana egiten duzue Seybon?


**E.** Lehen Seybon oso parrokia enblematikoa geneukan, baina gotzaitegiak kendu egin zigun orain bi urte nekazariak defendatzeagatik. Hauteskundeak hurbiltzean, nekazariei Estatuarrenak ziren lursailak eman zizkieten, baina handik gutxira lurra itzultzea behartu zituzten, jabego pribatua ziren aitzakiarekin. Nekazariak erabat engainatu zituzten eta nahiko istilu izan ziren Seybon. Protesta modura, 30 bat familia elizan sartu eta bertan egon ziren urritik otsailera bitartean. Gotzaiak nekazariak handik bidaltzeko esaten zigun eta guk ezetz, bera etortzeko arazoa konpontzera. Azkenean, 27 urtean gurea zen parrokiatik bialdu gintuen eta orain ez daukagu elizarik. Irratiarekin nekazariei laguntzen jarraitzen dugu.

**G.** Zein da nekazarien egoera?

**E.** Orokorrean euren buruarengan gehiago sinistea falta zaie, baina jendeak mentalidadea aldatzea ez da erreza. Fraileon laguntza gehiegitan zaie beharrezkoa eta ikasi egin behar dute euren kabuz aurrera egiten. Batez ere prestakuntza mailan laguntzen diegu. Biziraupen nekazaritza da hangoa: kafea eta azukrea esportatzen dituzte, baina gai-

**LUIS MARI OREGI**  
Dominikoa

*“Batez ere hezkuntza eta osasun mailan lan asko egiteke dago Errepublikan”*



Luis Mari Oregi bergarra Errepublikako dominikoen nagusia da.

nerakoa kanpotik ekarri behar dute. Bestalde, oso soldata baxuak dira han eta lan baldintzak askotan txarrak, batez ere emakumeen kasuan. Eskulan oso merkea denez, aprobetxatu egiten dira askotan. Irratiari esker nekazarietako lotura mantentzen dugu.

**G.** Orain jeneradorea erosi ahal izango duzue...

*“Nekazariei batez ere prestakuntza mailan laguntzen diegu. Oraindik ere euren buruarengan gehiago sinistea falta zaie”*

**E.** Errepublikak oraindik hutsune asko ditu eta horietako bat egunean zehar ordu askoan argindarririk ez izatea da. Egun batzuetan, 14 orduz egoten gara argindarririk gabe eta, beraz, jeneradorea beharrezkoa zaigu normaltasunez emititu ahal izateko. Udala eta Accion Verapaz, gure gobernuz kanpoko erakundearen artean erosiko dugu. Irrati-programazioan medikuen gomendioak, andren kontuak, merkatuko prezioak, lehen hezkuntzako eskolak edota mutilen gaietarako tarte dago. 70 kilometroko erradioan entzuten da eta hiribururaino ere heltzen da seinalea batzuetan.

**G.** Zeintzuk dira Errepublikako behar nagusiak?

**E.** Lan asko dago egiteke oraindik, batez ere hezkuntza eta osasun mailan. Lehen garapen bidean zegoen herrialdea zela esaten zen, baina ez dute garapenaren trena hartzen... Eta txarrena zera da, oinarririk ez dela jartzen herrialdea behar bezala garatzeko. Azpiegiturak oso gaizki daude eta bakarrik hauteskunde garaian egiten da zerbait. Esate baterako, eskoletan ordenagailuak jartzen dituzte propaganda politikoa egiteko, baina gero ez dago argindarririk... Eta argi barik industria egotea ezinezkoa da.

**G.** Ia 20 urte daramazu Dominikar Errepublikan...

**E.** Oso gustora ari naiz han, bertako bizimodura ohitu naiz eta nekeza ikusten dut berriz Euskal Herrira itzultzea. Han beharrezkoagoa naizela uste dut; lan asko dago egiteko eta gure premia handiagoa dute. Hemen nekezagoa da apaiz izatea, izan ere, gizartearen aldetik onarpen gutxiago dugu eta elizara ere jende gutxiago joaten da. **B**



# Santa Marina eliza hilabetez itxita, erretaula nagusia garbitzeko

## Sitsaren kontrako tratamendua egin eta eliza fumigatzeko

**Santa Marinako parroikia hilabetez itxita izango da, erretaula nagusia eta elizako beste hainbat egurrezko elementutan sitsaren kontrako tratamendua egin ahal izateko eta eliza osoa fumigatzeko.**

Astelehenean eliza itxi eta lanak hasi zituzten. Andamioak jarri eta erretaulako irudiak jaisten ibili dira astean zehar. Asmoa obrak urrian zehar egitea da eta Domu Santu egunerako eliza berriz ere zabaltzea.

Bitartean, San Pedron emango dituzte mezak: zapatuetan, 19:00etan; domeketan, berriz, 09:30, 11:00 eta 12:30etan. Santa Marinako apaizek gainontzeko elizetan ematen dituzten mezek ez dute ordutegi aldatzaririk izango, Elosun izan ezik, domeketakoa 10:00etatik 12:30etara pasatu baitute.

Erretaula nagusia oso-osorik garbituko dute. Horretarako, zulotxoetan sitsaren kontrako produktu kimikoak injektatuko dituzte. Erretaulan dauden irudiak, berriz, plastikotan bildu eta



Santa Marinakoa XVIII. mendeko erretaula barroko ederrenetakoa da. Aste honetan hasi dira garbiketa lanak.

15 egunez argoi gasetan edukiko dituzte xilofagoak akabatzeko. Sitsak azaletik hartzen ei du arnasa eta hauek akabatzeko 20 gradura edukiko dituzte irudiak plastikotan bilduta.

Bestalde, elizako zoruan, egurra dagoen tokietan, aulki guztietan, koruan dauden irudietan eta lehengo pulpitoan ere sitsaren kontrako produktu kimikoak erabiliko dituzte. Sakris-

tia ere garbitu eta ordenatu egingo dute.

Lanen aurrekontua 3 milioi pezetakoa da. Elizaren desinfektazio prozesuak 2 milioi pezetako kostua dauka eta Diputazioak erdia eman du. Horretaz gain, erretaulan jarri duten andamioaren zati bat ere Diputazioak eman du, baina instalazioak milioi bat pezeta inguruko kostua dauka eta hori elizak ordainduko du.

Santa Marinako erretaula nagusia Miguel de Irazusta arkitektuaren lan nabarmenenetakoa da. 1742. urtean amaitu zuten. Dekorazio bikainekoa da eta erretaula bera artelana da eta ez eskulturendako marko hutsa. Erretaulan dauden irudiak Salvador Carmonaren eskultura-lanak dira.

Santa Marinakoa XVIII. mendeko erretaula barroko ederrenetakoa da. B

**Usoa Pub**



☎ 943 76 38 57  
Irala 1

**IBARGUREN PENTSUAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



Hainbat herritar ezagunek bat egin dute Egin zena ordezkatuko duen egunkaria ateratzeko proiektuarekin.

## Egin berria ateratzeko 17 milioi batu nahi dituzte Bergaran

### 100.000 pezetako akzioak jarriko dituzte salgai

**Egin egunkaria** zena ordezkatuko duen egunkaria eta honen inguruan sortuko den komunikazioa taldea bultzatzeko sortu den Baietz fundazioak Bergaran 17 milioi pezeta batzeko kanpaina aurkeztu zuen martitzenezan Kultur Etxean. "Euskal Herrian oso medio gutxi daude benetan Euskal Herrikoak direnak. Gehienak kanpoko kapitala dutenak dira eta ez dira euskal komunikabideak" esan zuen Anaje Narbaizak, Baietz fundazioko kideak.

Egin eta Egin Irratia itxi zituztenetik, beste komunikabide talde bat sortu eta Gabonetan egunkari berri bat kaleratzeko lanean izan dira Eginen langileak eta honen inguruko hainbat lagun. Emandako lehen urra-

tsa Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteak (EKHE) sortzea izan da.

Elkarte honen lehen erronka nazio mailako egunkaria martxan jartzea bada ere, irratia, telebista edota beste era bateko komunikabideak sortzea da elkartearen helburua. "XXI. mendeko komunikazio talde batek eskatzen duen teknologiarri aurre egin, euskal medioak sortu eta estatu mailako medioei aurre egin, euskal kulturaren hedapena eta euskal sektore politiko eta sozialaren garapena dira EKHE elkartearen xede nagusiak" esan zuen Anaje Narbaizak.

Hauei guztiei aurre egiteko, Euskal Herri mailan 1.000 milioi pezeta batu nahi dituzte. Egin dituzten

azterketen arabera, Bergarari 17 milioi pezeta biltzea tokatzen zaio eta, horretarako, kanpaina bat jarriko dute martxan. 100.000 pezetako akzioak salduko dira eta herriko bazter guztietara heldu nahi dute, hau da, elkarte, talde, indar politiko eta sindikal, industria, pertsona eta abarretara. Lan hau bideratzeko lokal bat egokituko da.

Bestalde, Gabon zahar egunean kalean izan nahi duen egunkari berria nolako izango den azaltzeko hitzaldia emango du Martin Garitanok, Euskadi Informatión egunkari zuzendariak, datorren martitzenezan, 19:30etan, UNEDen. Bertara herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte Baietz plataformako kideek. **B**

## Hauteskunde mahaia osatzeko zozketa egin zen

**Astelehenean** egin zen Udaletxean urriaren 25eko bozketetan hauteskunde mahaia osatzeko zozketa. Udalak zozketaren emaitzak hauteskunde-batzordeari eman dizkio eta, orain, mahaiotan egotea tokatu zaien jakinaraziko zaie. Hauek, aste-bete izango dute erre-kurtsoak jartzeko. Ondoren, behin betiko erabakia hartuko du hauteskunde-batzordeak.

Mahaiko presidentea, 2 bokal eta bakoitzaren bi ordezko zozketatu ziren astelehenean. Guztiak, hauteskunde egunean goizeko 8etarako deituko dituzte eta mahaiak osatzen direnean, ordezkoak euren etxetara joan ahal izango dira. Hauteslekuak goizeko 9etatik iluntzeko 8etara bitartean izango dira zabalik, baina mahaietan egotea tokatu zaien hauteslekuak itxi ondoren, boto zenbaketa egin eta akta jaso arte egon beharko dute bertan. Hamarna mila pezetako dieta jasoko dute.

Bergaran, 17 hauteskunde-mahai jarriko dira: Errege Mintegian (8 mahai), Matxiategian (4 mahai), Martokon (3 mahai) eta Ibarra eta Osintxun, mahai bana. 12.909 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Bergaran 15.242 biztanle daudela kontutan hartuz, 2.333 bergarar dira 18 urtetik beherakoak.

# Gizarte zerbitzuei buruzko gidaliburua kaleratu du Udalak

## Eskaintzen diren zerbitzuei buruzko informazioa dakar

**Bergarako Udaleko** Osasun, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Departamenduak eskaintzen dituen zerbitzu, aktuazio eta tramitazioen berri ematen duen gida bat banatuko du etxeko. Helburua herritar guztiei, orokorrean, eta laguntza berezia behar dutenei, bereziki, informazioa eman eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzera animatzea da.

Gidak 32 orrialde ditu eta euskaraz eta gaztelaraz idatzita dator. Zortzi puntu nagusi jorratzen ditu: pobrezia laguntzak, pentsioak, minusbaliotasunak, drogo-menpekotasunak, familiei laguntzeko zerbitzuak, emakumea, adin txikikoak eta enplegua eta formazioa. Bakoitzean, era eskematiko eta laburrean, departamenduak eskaintzen dituen laguntzak eta zerbitzuak zehazten dira. Batzuk, Udalak

zuzenean antolatu edo eskaintzen ditu; beste batzuk, Jaurilaritzaren edo Gipuzkoako Diputazioaren bitartez tramitatzen dira. Ines Etxeberria Udaleko gizarte zerbitzuen teknikariak gidaren aurkezpenean esan zuenez, "asko dira departamenduak eskaintzen dituen laguntza

eta zerbitzuak ezagutu eta erabiltzen dituztenak, baina, era berean, herritar askok ez du hauen berri eta, horregatik argitaratu dugu gida hau, herritarrek informatzeko". 5.000 gida kaleratu dira eta Bergara, Antzuola eta Elgetako etxeetan banatuko dira. **B**



Alvaro Esparza zinegotzia eta Ines Etxeberria gizarte zerbitzuetako teknikaria.

## Bergara eta Antzuolako sei enpresa, Bilboko Ferroforma ferian

**Domekatik** eguaztentera arte iraun duen Ferroforman, Bilboko Nazioarteko Ferreteria Ferian, Bergara eta Antzuolako sektoreko sei enpresak hartu dute parte. Bergarako Alura, Ibili, Urcelay eta Lacor eta Antzuolako Goizper eta Talleres Anzuola dira Ferroforman izan direnak.

Sektoreko mundu mailako hirugarren feria da Bilbokoa, Chicago eta Coloniakoan atzetik eta aurten Euskal Herri osoko 1.200 enpresak eta Deba Garaiko hogeik hartu dute parte. Feria bi urteik behin antolatzen da eta aurten goa 13. edizioa izan da.

Ferroforma feriak edizio honek marka guztiak hautsi ditu eta aurreko ekitaldian baino %25 bisitari gehiago izan ditu lehen bi egunetan.

### ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...



**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

### Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**

## EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

## LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5  
BERGARA

☎ 943 76 10 57



## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

# Berrigara

337 zenbakia.  
1998ko urriaren 2a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
E.mail: [berrigar@sendanet.es](mailto:berrigar@sendanet.es)  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Hapidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martín Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkiak: Orfeoia-Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurilaritzako  
Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: [berrigar@sendanet.es](mailto:berrigar@sendanet.es) (Gutunak identifikatu egin behar dira).

### BOLU ALDEAN EUSKARA AT

Bolu aldean aspaldi honetan antena parabolikoa dela eta europar aire berriek (TVE Internacional, Euronews...) gogor astindu dituzte inguruak. Zoritxarrez euskara ere gogor astindu eta at utzi dute europar aire berri hauek.

Zanpaketa honen adibide garbitzat jo dezakegu, besteak beste, auzokideen batzordeak auzokide guztiguztiontzat zabaltzen dituen informazio oharrek espainol hutsean izatea.

Hori dela eta, neure keza adierazi beharra daukat eta auzokide guzti-guztion oharrek gutxienez euskaraz izan daitezela eskatu. Bestetik gabe, ikasarte.

Joxe Mari Gabilondo  
Aranerrek 9

### BARIANTERA IRTEERA

Kotxea egunero erabili beharrik ez daukat. Eskerrik! Aparkatzeko arazoak, tokia aurkitzeko bueltaka ibili behar, multak... Eta Beheko Estaziotik bariantera irten beharra edukiz gero, ai ama, hau koñazoa!

San Antonion egiten ari diren obregatik, Martoko eta Zubiaurrera joateko bidea moztuta dago eta, ondorioz, herritik Arrasaterantz abiatzeko irteera bakarra (San Lorentzo alderaino joaten ez bagara) Beheko Estaziokoa da, baina baita gogoangarria ere.

Izan ere, arratsaldeko ordubiak eta seirak aldera batez ere, sekulako iladak sortzen dira inguru horretan. Batzuetan ertzainak izaten dira trafikoa gidatzen eta, azkartu egiten da zertxobait, baina beti ez dira egoten.

Idatzi honekin zera eskatu nahi nuke: ertzainak egunero ibili daitezela trafikoa gidatzen eta hauek ezin badute, udaltzainek har de-

zatala lan hori, espaloi gainean aparkatzeagatik multak jartzen ibili beharrean.

Mikel Gallastegi


## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Gripearen kontrako txertoa hartzeko ohiturarik badaukazu? Hartu duzu txertoa aurten?



**Patxi Barrutia**

Orain arte ez dut sekula hartu baina aurten, prebentzioagatik, badaukat hartzeko asmoa. Medikarekin kontsultatu behar dut, baina uste dut onerako dela.



**Amparo Pescador**

Orain bi urte hasi nintzen txertoa hartzen, orduan nahiko gaizki pasatu bainuen. Aurten ere hartu dut dagoeneko, edadean aurre-ra goaz eta...



**Francisco Palomares**

Bai, 40 bat urtean hartu dut txertoa, urtero, eta niri ondo etortzen zait, katarroari edo gripearri aurre egiteko. Aurten ere hartu dut, trankilago geratzen naiz.

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Luis Gomezek** deitu digu aste honetan berriz BERRIGARARA, joan zen astean leku arazoengatik jarterik izan ez genuen kexatxo bat azaltzeko. Kontua da Luis zenbaitean bere andrearekin erosketak egitera etortzen dela herri erdira kotxez eta askotan Kruz Gallastegi kalean aparkatzea tokatu zaio. Sarritan, bere kotxea jasotzera joan eta traban beste bat aparkakatuta aurkitu izan du, beste gidaria etortzeko zain egon behar duelarik. Horrelako infrazioak zigortzekoak direla uste du Luisek, eta Udaltzaingoari horiek kontutan hartu eta beste huskeria batzuetan denbora ez galtzeko eskatu nahi dio.



**Maria Teresa Urkiaga**

Bai, urtero hartzeko ohitura daukat, 12 bat urtetik hona. Katarroak harrapatzen jarraitzen dut, suabegoak hori bai, baina ni, behintzat, lasaiago geratzen naiz.



**Joaquin Gomez**

Ba ez dut sekula hartu eta orain arte ez dut katarrorik harrapatu... Egunero bi pakete zigarro erretzen ditut eta ondo nabil oraingoz. Ez dut txertorik hartuko.



**Felisa Uribarri**

Ez dut sekula hartu, ez zait gustatzen. Orain arte ez naiz inoiz gaisorik egon eta ez naiz hartzen ausartzen. Nahiago dut orain arte bezala hartzeke jarraitzea.

■ ikuspuntua: **iñaki mozos**

## Gogoratuko al gara?

Udazken aste honetan, gutxiagotan entzun dut opor bidai saiorik aurrekoetan baino. Opor bidaien bueltako betiko "oso ondo!, zoragarri!" horiek, su-etena dela-eta utzi ote ditugu alde batera? Ukaezina da, hizketa gai alai (bestalde, oporren alde ilunak izkutatzen dituen) hori baztertu badugu ere, hizpide berria ekarri digula treguak.

Irribarre zuhurra (zuhur-kauteloso bete zaizkigu bazterrak), batzuetan inoren lotsaz nahasita, atera baitigu politikoen ustekabeak. Ze harritu, denok harritu egin ginen; bai-



na, politikoak (uste sendoko itxuraren premia baitute, hitza beti prest behar ohi duten horiek), oraingoan ipurdia agerian geratu ziren: aktore eta berri-ritsu hitzontziarena egiten ari zirela ederki igarri genien. Jakin, inork zer edo zer zetorrela, jakingo zuen: baina, hain azkar eta hain bertan! Eta, noski, apurtxo bat pentsatzeko denbora hartu, eta ohiko zezengurdiari heldzea besterik ez zitzaien politiko batzuei (ez denei) okurritu: bereizketa artifizialekin

na, politikoak (uste sendoko itxuraren premia baitute, hitza beti prest behar ohi duten horiek), oraingoan ipurdia agerian geratu ziren: aktore eta berri-ritsu hitzontziarena egiten ari zirela ederki igarri genien. Jakin, inork zer edo zer zetorrela, jakingo zuen: baina, hain azkar eta hain bertan! Eta, noski, apurtxo bat pentsatzeko denbora hartu, eta ohiko zezengurdiari heldzea besterik ez zitzaien politiko batzuei (ez denei) okurritu: bereizketa artifizialekin

segitzea ("nosotros los demócratas"), antzinatek dirauten bidegabekeriei eustea ("las víctimas", zehaztu gabe, bada ez bada ere: nik dakidala, hildako lehenengoetako zinegotzia Tomas Alba izan baitzen...), edo Akademia Españolak bere hiztegian zuzendu ere egin beharko duen hitzen esanahi nahasketak mortala ("no son lo mismo los presos y las víctimas": galde biezaiete dispersioa dela-eta bidean istripuetan hildako senideen senide bizie!; senide bizi presoei barne).

Alde ilunak ere bai baititu, oporrek bezala, kontu honek. Ea ez ditugun izkutatzen: oroimen ariketa ederra daukagula-eta, denok, eginkizun. **B**

asteko menua: panaderokua jatetxea



KONTXI IDIGORAS

Panaderokua jatetxeko sukaldaria

## Onddo tarta

### OSAGAIAK (8 lagunentzat)

*Moldea egiteko:*

- 300 gramo irin
- 150 gramo gurin
- Gatz apur bat

*Errellenoa egiteko:*

- 400 gramo onddo
- 200 gramo gruiere gazta
- Salda katilukada bat
- 20 gramo gurin
- Esnegain piskat
- Perrexil apurtxo bat
- 3 arrautza
- 150 gramo tomate
- Gatza
- Kipula apur bat

### PRESTAKETA

*Moldea egiteko:*

- Irina, gurina eta gatza ondo nahastu eta bola bat egin.
- Hozkailuan ordu erdi inguru eduki.
- Moldea forratu.

*Errellenoa egiteko:*

- Gurina zartaginean berotzen ipini eta kipula eta tomatea potxatu.
- Gutxika-gutxika salda beroa botatzen joan, gutzia ondo egosi arte.
- Saltsa hau tartera hondoan jarri eta, jarraian, onddo zatiak bota.
- Arrautzak irabiatu eta esnegaina, gazta eta gatzarekin ondo nahastu.
- Guztia moldean jarri eta maria bainuan labean 200 gradura eduki ordu erdi inguru.

adituen esanetan

## Udazkeneko aldaketak

IÑAKI IRIZAR, *biologoa*

Udazkeneko gauza aipagarrienetakoa bat paisaia egoten diren aldaketak dira. Zuhaitz ostogalkorrek (kaduzifolioek) hostoa galdu eta kolorez aldatzen dute eta baso zabalak geratzen diren lekuetan oso fase ikusgarriak ikus daitezke. Herri mailan disfrutatzen hor dira, besteak beste, Usondon, Zubiardean edota Zubietako eskola aurrean diren ezkiak. Hostoa hori-hori jartzen zaie eta oso deigarriak dira. Bestalde, hegaztien migrazioa ere aipatzekoa da. Udazken hasieran milaka hegazti igarotzen dira hemendik, goiko latitudetatik hegoaldera bidean, eta horrek nolabait udaren bukaera iragar-

tzen digu. Usoak, antzarrak eta bestelako hegaztiak ikus daitezke eta Urkulu oso leku aproposa da horretarako, urriko hego-haize egunetan batik bat. Urri lotutako hegaztiak ere badira eta kalkulatu da 1.000 inguru Urkulun bertan geratzen direla, tartean ahateak, koartzak edota kopetazuriak. Beste hegazti batzuek berriz hegoalderako bidea jarraitzen dute.

Era berean, perretxikotarako oso garai egokia da udazkena. Dena den, alderdi gastronomikoaz gain, espezie ezberdinak bereizten ikasteko aukera dago, epoka honetan ikusten baita espezie kopuru altuena. **B**

bergarako gordailutik

## JOLASAK ETA JOKOAK

Imanol Sorondo

*N*oizkoak ote gure arteko jolas ezagunak? Nork daki? Noiztik datozen ez jakin arren, aipatu ditza-gun batzuk eta kakotx artean ipini Bergaran azaltzen diren beraien urteekin.

**Pilota jokia.** Behin baino gehiagotan irakurtzen da pilota toki bat behar dela (1745), eta "Irizarren" mugetan berri bat egiten ari direla (1757). "Berria" egiten ari badira, badirudi zaharragoren bat izan zela.



**Bola jokia.** Mizpildin zen bat (1728) eta Elosun bi, bat Bentan eta bestea elizaren ondoan (1749). Zailantza askorik gabe esan liteke gehiago ere izango zirela. Gainera, izendatu egiten zuten noren esku utzi; horrela, Mizpildikoa Etxartetar Juanen esku eta, geroxeago, emakume baterenean, Amatianotar Simonen alargunarenean. Bentakoan, behintzat, dirua jokatzeko zen, eta Udaletxeak joko bakoitzeko "belon" diruko bi laurden baino gehiago ez ipintzea agindu zuen, eta iluntzeko agurmarien ondoren bolatokia ixteko, kexa handiak zeudelako.

**Ahari jokia.** 1822. urteko urrian alkate jaunari baimena eskatu zitzaion ahari joko bat egiteko; ahariak Aiar-dikoa eta Osintxuko Joxerenak ziren. Eguna eta ordua alkateak ipini zituen: hurrengo igandean, 11:30etan. Asko izan omen ziren ikusten eta jokoaz gozaten Bergarako enparantzana. **B**



ARGAZKI

## 1948an jaiotakoak

Aurten 50 urte betetzen dituzten bergararrek **kintada afaria** egin zuten zapatuan. Santa Marinaran meza entzun eta Frontoian taldearen argazkia atera ondoren, pote batzuk hartu eta Lasa jatetxean afaria izan zuten. 1948ko bergarar gizon eta emakumeak biltzen ziren lehen aldian zen honako hau eta guztira **107 lagun** elkartu ziren zapatuan. Guztiek umore eta martxa ederra erakutsi zuten afalostean **La Parranda** taldeak alaitutako dantzaldian. Datorren urtean ere biltzeko geratu ziren. Laister arte!!

## Punteria finekoak

**Rafa Alcaide** bergararrak irabazi zuen eguakitzean Nahikari tabernan jokaturako **dardo txapelketa**. 22 lagun izan ziren lehian eta txapelketa oso borrokatua gertatu zen. Azkenean, bi ordu eta erdiz

dianan jotzeko ahaleginetan jardun ondoren, Alcaide alde txikiarekin suertatu zen garai-le eta bere atzetik **Unai Garai** atxabaltarra eta **Patxi Rejano** eta **Jose Manuel Muñoz** bergararrak sailkatu ziren. Lehen hirurek trofeo bana jaso zuten eta Muñozek oparixko bat eraman zuen etxera. Orain, hurrengo txapelketari begira, entrenatzen jarraitu behar...



## Urrezko ezteiak

**Donato Ormazabal eta Lucia Farras** senar-emazteek, ezkondu zireneko **urrezko ezteiak** ospatu zituzten San Martin egunean, **irailaren 16an**. Eguerdian San Antonion meza entzun ondoren, familiarterkoekin batera bazkaria izan zuten Lasa jatetxean. Guztiek egun ahaztezina igaro zuten elkarrekin eta Luciak eta Donatok emozioz beteriko ospakizuna bizi izan zuten. Zorionak eta eutsi osasunari!!



# "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" Iemapean Kontseiluaren kanpaina abian

Euskararen normalizazio bidea azkartzeko erakunde eta talde ugari elkarlanean

**Euskararen Gizarte Erakundeentzako Kontseiluak udazkenerako prestatu duen kanpaina aurkeztuko du bihar, zapatua, Zamudioko Teknologi Parkean.**

"XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" da egun hauetan abian jarriko den kanpainaren izenburua. "Duela 20 urte euskal gizarteak 'Bai euskarari' goiburuean indarrak bildu zituen etorkizun-uraspide funtsezkoak abian jarri. 20 urte eta gero, gaur egungo euskal gizarteak 'Bai euskarari' dio berriro, euskararen normalizazio bidean aurrera egiteko indarrak agertaraziz, mende berriko akordioa abian jarri" dio Xabier Mendigurenek, Kontseiluak idazkariak.

Gabonak bitartean, hainbat ekimen bultzatuko ditu Kontseiluak eta abenduaren 20an San Mamesen egingo den jaialdi erraldoi batek, orain dela 20 urte egin zena gogoratuz, emango dio amaiera kanpainari.

Zapatuko aurkezpen ekitaldian, kanpainaren azalpen laburra emango da eta, ondoren, Pruden Sudupe, lehendakariak Kontseiluaren aurkezpena egingo du. Kanpainaren helburu, mezu eta ardatz nagusiak zehaztuko dira. Ekitaldian beste hauek ere hartuko dute parte: Iñaki Uria Euskaldunon Egunkariako kontseilariak, Antonio Campos Ikastolen Federazioko lehendakariak, Juan Mari Larrarte AEKko Gipuzkoako arduradunak, ELA eta LAB sindikatuetako eta MCCko ordezkariak, Jose Maria Arrate Athle-



Orain dela 20 urte San Mamesen antolatutako jaialdirako erabilitako ikurra.

tic-eko presidentek eta Iñaki Zarraoa EITBko buruak.

## Zer da kontseilua?

Kontseilua euskararen inguruan lan egiten duten Euskal Herri osoko hainbat talde, erakunde eta elkarte biltzen dituen elkargoa da. Euskaltzaindia, Bertsoari elkarteak, Topagunea, Euskaldunon Egunkaria, Elhuyar, Elkarlanean, Ikastolen Federazioa, Eusko Ikaskuntza, Argia..., izen batzuk aipatzearen, dira bertako kideak. Iazko abenduaren 6an sortu zen. Osaera, erregimen eta antolaketa antzekoak izanik, euskarak gara-

pen osoa izatea helburu duten erakunde ugari osatzen dute Kontseilua.

Hona hemen, Kontseiluari buruzko datu batzuk: 50 erakunde baino gehiago biltzen ditu, horietako zenbait (euskara elkarte eta herri aldiakariak, tartean Jardun eta BERRIGARA, biltzen dituen Topagunea) talde askoren bilgune direnak; 5.000 langiletik gora; 100.000 bazkide inguru; 50.000 milioi pezetako fakturazioa urtero...

## Zertarako sortu zen?

Kontseiluaren eginkizun nagusia euskararen normalizazio-

prozesua areagotu edo bizkortzea da. Horretarako, bi jardunbide nagusi izango ditu: alde batetik, euskalgintzako erakundeentzako artelanaren bultzatzea eta indarrak artikulatzea eta, bestetik, gizarte-eragileak, indar ekonomikoak eta alderdi politikoak hizkuntza normalizazio-proiektuetan inplikatzeko.

## XXI. menderako akordioa

Bihar aurkeztuko den kanpainarekin, Kontseiluaren asmoak plazaratu nahi dira. Kontseiluak, gizartearen aurrean euskararen normalizazioaren erreferente nagusi bezala aurkeztu nahi du bere burua.

Horretarako, Euskal Herri osorako proposatzen duen akordioa herriz herri aurkeztuko dute euskalgintzako partaideek. Bergaran eta bailara mailan, euskararen inguruan diharduten talde eta elkarteak lanean hasiak dira dagoeneko. Azarotik, esate baterako, "Akordioaren astea" antolatuko da Bergaran.

San Mameseko jaialdi erraldoiaz gain, kanpainaren zehar bultzatuko diren ekimen garrantzitsuenetako bat eragile sozialei, langile eta enpresariok bereziki, inplikazio zuzena eskatzea izango da: lan-ordubaten balioa euskarak behar duen akordioaren alde ematea.

Bestalde, Durangoko azokan, abendu hasieran, kanpainaren aurkezpen publikoa egingo da eta San Mameseko jaialdian, XXI. menderako proposatzen den akordioa herritarren aurrean azaldu eta eszenifikatuko da. B

**Kontseiluak gizartearen aurrean euskararen normalizaziorako erreferente nagusi izan nahi du**



# Diamantezko ezteiak

## Bergarako Orfeoia: 75 urtetako ibilbidea

**Bere sorreraren 75. urteurrena ospatzeko Orfeoia hainbat musika ekitaldi iragarri ditu 1999ko irailera bitartean. 1923an (orduan "Coral Vergaresa" izenarekin) Don Roman Oiarzabalek zuzendutako abesbatza saritu egin zuten Santanderren eta, hain zuzen ere, gaurko Orfeoiko arduradunek data hori hartu dute Orfoiaren sorreratzat. Orain, urte hauetan egindako lana ospatzeko garaia da.**



Argazkian Bergarako Orfeoia 1947. urtean, Epaitegi aurrean. Don Roman Oiarzabalen zuzendaritzapean Orfeoia maila bikaina erakutsi zuen.

Orfeoia bere sorreratik erakutsi zuen herriko abeslarien maila, izan ere, bat-bateko proban lehen saria lortu zuen Santanderren 1923an. Donato Gallastegik *Bergarako kronikak* izenburuko liburuan jasotzen duenez, Orfeoia, besteak beste, Bilboko *Lagun Artea* eta Durangoko *Durangués* koroekin neurtu zituen indarrak.

Bat-bateko proban, partaideei aurrez ezagutzen ez zuten pieza bat gertatzeko denbora eman zitzaion eta Don Roman Oiarzabalek maisutasun osoz zuzendu zuen garai hartan gizonez bakarrik osatutako abesbatza, lehen saria jasoz. Epaimahaiak agindutako programan Orfeoia bigarren geratu zen, bilbotarren atzetik. Estatu mailako lehia-

keta izanik, saria lortzeak Orfoiaren izena zabaldu egin zuen eta Santanderretik bueltan herriak harrera bikaina egin zien. Garai hartan Orfeoia Epaitegiko eskoletan eta Irizarreko lorategian entsaiatzen zuen eta Santanderrera lehiaketari begira, Don Remigio Mujika Iruñeko Orfoiaren zuzendari bergararrak gainbegiratu zituen entsaiuak.

Esan bezala, ordurako, Don Roman Oiarzabalek Don Pedro Retana apaizak lagatako testigua jaso zuen. Musikarako zuen zaletasuna bergarar guztiei kutsatu zien Retanak (oraindik ere hainbat korok *Sale el sol y se seca el charquo* bere jota ezaguna abesten jarraitzen du). Horrela, joan zen mendearen azkenetan *Aritz-maitea*, 80 bat gizonen osatutako abesbatza osatu zuen. Talde hau Orfeoiaren aitzindaritzat jo daiteke. Don Pedro Sevillara joan ondoren, 1909an Bergarara etorritako Don Roman Oiarzabal medikuak hartuko zuen Retanaren testigua handik urte batzuetara. Oiarzabalek, bere ikasle garaian, piano eta armonia ikasketak ere egin zituen eta Capilla Realeko tenore izatera irits zitekeen, bere aitaren insistentziaz medikuntza ikasi behar izan ez balu. Hala ere, bokazioz musikaria zen Don Roman Oiarzabal eta bere afizioari etsi ahal izan zion Bergaran.

#### Orfeoiaren arima

Juan Jose Hernandoren iritziz, Oiarzabal izan zen Orfeoiaren benetako arima: "pertsonalitate handiko gizona zen. Askotan haserre biziz etortzen zen

juntara, jendeak entsaiuetan huts egiten zuela eta urte hartan ez zela kontzerturik egongo esanez. Urteroko kontzertua zen. Berehala konbentzitzen genuen aurrera egiteko baina berak ordurako bazeukan kontzertuaren programa poltsikoan eta ideia berriak buruan". Hernando Orfeoiko idazkaria izan zen 10 bat urtean eta 1980tik 85era bitartean taldeko presidente izan ge-

### **"Don Roman Oiarzabal Orfeoiaren benetako arima izan zen. Zuzendari bikaina zen eta horrez gain oso abeslari onak bildu zituen Orfeoian" JUAN JOSE HERNANDO**

nuen. Gaur egun, oraindik ere, ahal duen neurrian, Orfeoiarekin kolaboratzen jarraitzen du. Orfeoiaren historian lau etapa bereizten ditu Hernandok: "alde batetik 1923tik 1930.era bitartekoa, gerragatik eten zena; bigarrenik, 1945etik 1952ra doana; ondoren, nire ustez Orfeoiaren garairik oparoena hasten da, 1952-1985 bitartean, maila handiko kontzertuak egin baitziren sa-soi hartan; eta, azkenik, 1985etik hona datorrena". Hernandoren arabera,

"1952tik aurrera Orfeoia hainbat orkestarekin batera kontzertuak ematen hasi zen eta garai hartan izen handia hartu zuen. Don Roman zuzendari bikaina zen eta, horrez gain, oso abeslari onak izan ziren taldean. Orfeoia kanpoan ezaguna egiten hasi zen eta Euskal Herriko kanpora ere eman zituen kontzertuak, besteak beste, Madrileko Teatro Realen, TVEn, Zaragozan, Composte-

lan, Valladoliden, Cuencako Jaialdian..., nahiko famatua bilakatu zen Orfeoia". Juan Jose Hernandok gogoratzen duenez, Bergaran ematen zituen kontzertuak entzutera ere Euskal Herri osoko zaletuak etortzen ziren; "Bilboko Orkestarekin emandako kontzertuak oso arrakastatsuak izaten ziren eta, bestalde, 1952tik 1985era bitartean San Pedron antolatu ziren kontzertuak musikazaleontzat ezinbesteko zita bilakatu ziren".

## Programa zabala musikazaleentzat

Orfeoiaren 75. urteurrenako ospakizunak urtebetez luzatuko dira. Orfeoiko arduradunek prestatutako programari hasiera emateko, David Azurzak zuzentzen duen taldeak, urriaren 24an, Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Topaketan parte hartuko du. Jarraian eta hurrengo irailera bitartean hainbat musika ekitaldi izango dira.

Maiatzean, Charles Dickens-en *Oliver Twist* nobelan (1837) oinarritutako *Oliver!* musika antzerki ikuskizuna helduko da. Madrileko Colegio Salesianos Atochako antzerki taldea da Lionel Bart-en libretoaren gaztelarazko bertsioa landu duen bakarra eta madrildarrek Orfeoiari eszenografia, atrezzo eta jantziak lagako dizkiote Bergaran *Oliver!* antzezteko. David Azurza izango da musika zuzendaria, Valen Moñuxek eszena zuzendaritzaren ardura izango du eta Miguel Moñuxek, Pello Txintxurretak eta Margaret Allgrem-ek euskarara moldatuko dute musika. Dударik gabe, ospakizunetako izarretako bat bilakatu da. Bestalde, Juan Jose Menaren zuzendaritzapean, Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoia kontzertua eskaniko dute San Pedron datorren urteko irailean. Lehen zatian, Gabriel Arestiren testuetan oinarritutako Jesus

Egigurenek konposatutako *Zerua goian ta lurra bean* estrainatuko da eta bigarren zatian Miguel Gonzalez Bastidaren *Stabat mater* helduko da. Obra hau 1976ko abenduaren 12an estrainatu zuten Orfeoia eta Bilboko Orkestra Miguel Gonzalez Bastida beraren zuzendaritzapean eta San Martinen estanpa lanean *Quando corpus morietur*, *Paradisi gloria* eta *Amen* atalak entzun ahal izan ziren. B



Bilboko Udal Orkestarekin batera, Jesus Aranbarriren batutapean Orfeoia San Pedron emandako kontzertuen artean, besteak beste, hauek nabarmendu daitezke: Verdiren *Requiem Meza* (1952), Berliozen *Grand Messe des morts* (1953), Haendelen Mesiasen *Alleluia* (1955) edota Escuderoren *Ileta* oratorioa (1959). 1960tik aurrera, berri, Frübeck de Burgosek zuzendu zituen kontzertuak: Mendelssohn-en *Elias* oratorioa (1960) edota Haendelen *Mesias* oratorioa (1962). Jarraian Vicente Spiterik hartu zion erreleboa: Wagneren *Jainkoen gainbehera* (1964) edota Haydn konpositorearen *Sorkuntza* (1966). Ondoren, Odon Alonso izan zen San Pedroko kontzertuen gidaria: Mozarten *Exultate jubilate* eta Carl Offen *Carmina Burana* (1972) edota Jose Maria Gonzalez Bastidaren *Deus Israel Inigo de Loyola* eta Mozarten *Requiem*a (1974).

#### Bost zuzendari

Kontzertu horiek historia dira dagoeneko. 75 urte pasatu dira Orfeoia mar txan jarri zenetik eta denbora luze honetan bost zuzendari besterik ez ditu izan taldeak: Don Roman Oiazarbal,

### **"Probintzia eta estatu mailan aspaldi honetan ez dute gure berririk izan eta beraz 75. urteurrenak bultzadaxo bat eman diezaioke Orfeoia" DAVID AZURZA**

Miguel Gonzalez Bastida, Jesus Berroya, Cristina Larrañaga eta, azken garaian, David Azurza tolosarra. Azurza 1993an izendatu zuten zuzendari eta bere hitzetan, "uste dut Orfeoia momentu onean dela gaur egun. Gure helburu nagusienetako bat kide guztiak dinamika berean, proiektu berean, sartzeari, lehen jendeak ez zuelako



David Azurza tolosarrak zuzentzen du Orfeoia 1993tik.

kontzientziario hori. Orfeoia egitura sendotuz joan da eta jendea animatuta ikusten dut. Orain, 75. urteurrenako ospakizunekin, bultzadaxo bat izan dezake Orfeoia; herri mailan ezagunak gara, baina probintzia eta estatu mailan aspaldi honetan ez dute gure berririk izan. Beraz, Orfeoia izena zabaltzeko eta, zergatik ez, Orfeoia jende be-

kalitatean. Guk pausoz pauso gure ibilbidea egin behar dugu. Ezin gaitezke hasi orkestra sinfonikoekin kontzertuak ematen, poliki-poliki joan behar dugu, ganbara taldeekin edota orkestra txiki-ekin batera abestuz. Gure emanaldietan gero eta kalitate hobea erakusten ari gara eta, beraz, bide onetik goaz. Zenbat eta aktuzio gehiago izan, orduan eta hobeto abestuko dugu".

Orfeoia taldeko kide izan diren guztiak omendu nahi ditu. Oraingoz ez dago jakiterik zenbat lagun pasatu diren taldetik. Gaur egun Orfeoian 75 lagun dira; Aitzol Mujikak zuzendutako Orfeoia Gaztean, berriz, 20 gazte daude. Horrez gain, Orfeoia 350 bazkide ditu. Mila Andueza Orfeoia presidentea pozik dago taldearen gaur egungo egoerarekin: "uste dut taldeak maila ona lortu duela eta guztiok ilusionatuta gaude urteurrenaren inguruan antolatutako ekitaldiekin. Programa erakargarria osatu dugu eta herritar guztiak ospatu nahiko genuke guretzat hain berezia den data hau". B

ria erakartzeko ere interesgarria izango da 75. urteurrena". Donostiako Orfeoia izenak gainontzeko orfeoia lana estaltzen ote duen ere galdetu diogu Azurzari; "errealistak izan behar gara eta gure aukeren arabera planteatu behar ditugu gauzak. Donostiako Orfeoian probintzia osoko jendea ari da eta hori igartzen da entsaioen erritmo eta

RPS: 292/98

**Ψ**

**NARE**  
psikologoak

HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR  
Tf. 943 20 05 95

Fiskala  
Lanekoa  
Kontablea  
Aseguruak

**TG B** AHOLKULARITZA

TBG. Ander Alberdi Lete / Zuzenbidean lizentziatua

Matxiategi 36, behea Tf. 943 76 90 83  
20570 BERGAR Gipuzkoa Faxe 943 76 92 04

**TRANSBER**

**TG B**

Era guztietako kargak  
Iraulkiak-Grua

Matxiategi 36, behea BERGARA  
Tf. 943 76 90 83. Faxe 943 76 92 04



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Patxaran Team-Amilotx  
 10:00: Ezinleike-Ari Ari  
 11:00: Mo(ko)lotov-Bayer  
 18:00: A Ze Flaxa-Bildurbarek  
 19:00: Pagomendi-Jauja OH Zerezos  
 20:00: Pinturas Bergara-Uve Bikoitza

Ezinleike  
 Mo(ko)lotov  
 Ari Ari  
 Pagomendi  
 Bildurbarek  
 OH Zerezos

### ZAPATUAN KANPOAN

16:00: FAC-Usoa  
 18:00: Eri Sirimiri-Agirrebeña  
 19:00: Zubixaurre Punk-Matxakategi

Eri Sirimiri  
 Zubixaurre P.  
 Agirrebeña

### DOMEKAN BARRUAN

09:30: Azpeitxi-Mongatxurak  
 10:30: Bar Canalejas-Errotagain  
 11:30: Orzi-Shaktale  
 12:30: Tom Cat Argandolas-Buya  
 16:00: Arbe Kirolak-Moskis  
 17:00: Amozkibar-HHH  
 18:00: Urrutxurtu-Ion Autoak  
 19:00: Patatus-Ufala

Bar Canalejas  
 Orzi  
 Errotagain  
 Shaktale  
 Amozkibar  
 Urrutxurtu  
 Patatus  
 Autos Ion

## argi!

### Arauk tabernan eskuragarri

Antolaketa Batzordeak arau berriak daudela gogoratu nahi du berriz ere. Arauk biltzen dituen txostenak, Labegaraietako Kikiroldegiko tabernan eskuragarri daude. Batzordeak beharrezkoa ikusten du talde eta jokalarri guztiak arau berrien jakinaren gainean egotea txapelketan gaizki ulertuak egon ez daitezen.

### Arau berri batzuk

Hona hemen aldatu diren arau batzuk: atezainak eskuarekin hartu ahal izango du baloia, bere taldekide batek ematen badio. Bestalde, atezaina areatik irteten bada, 3 minutu egin beharko ditu kalean.

## jokoz kanpo



Roberto Calleja  
 AGIÑASPI

**G.** Iazko talde bera daikazue?  
**E.** Bai. Bi jokalarri gehiagorekin. Bergara eta Plazentziako jendeak osatzen du taldea. Ni, esaterako, Plazentziakoa naiz.  
**G.** Nola amaitu zenuten iaz?  
**E.** Lehen mailako azken postuan gelditu ginen. Baina oraingoan lehen mailan jokatzeko aukerak ditugula uste dut.  
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?  
**E.** Atzean.  
**G.** Zenbat urte txapelketa honetan?  
**E.** Antolatu zen bigarren urtean eman genuen izena. Asteazken zehar kirol egiteko denbora gehiegi ez dago eta, horrela, igandetan bakarrik bada ere zerbait egin daiteke.  
**G.** Talde faboritoa?  
**E.** A Ze Flaxa Etxagi.  
**G.** Jokalarri bat?  
**E.** A Ze Flaxa Etxagiko Bittor.  
**G.** Clemente ala Camacho?  
**E.** Camacho. Clementek lagunak aukeratzen ditu eta Camachok jokalarriak duen maila hartzen du kontutan.  
**G.** Zein taldetako zara?  
**E.** Real Madrیدهkoa.  
**G.** Jokalarri profesional bat?  
**E.** Morientes, baina Agustin Aranzabal ere oso atsegin dut Madrildarren jarraitzailea izan arren.

## gora eta behera



### Sailkapenaren goialdean

Txapelketa hasi berri den arren hona hemen goialdean nagusitu direnak: A multzoan, Txipiron lehen postuan eta FAC bigarren, biak seina puntuz. Lehen mailan, Errotagain eta B multzoan Arbe Kirolak. C multzoan hiru dira orain arteko partidu guztiak irabaztea lortu dituztenak; Bayer, Xurrupek eta Eri Sirimiri.



### Bi partiduak galdu dituztenak

Lehen mailan, Orzi eta Mongatxurak. A multzoan; Irubide jatetxea, Ion Autoak, SLP eta La Juve. B multzoan, Amozkibar eta Ufala. Azkenik, C multzoan, Agirrebeña, Amilotx, Matxakategi eta Zubixaurre Punk.

## emaitzak

Pagomendi-Orzi	8-2
Jauja OH Zerezos-A Ze Flaxa Etxagi	4-6
Bildurbarek Opel/Lam-Bar Canalejas	0-1
Shaktale-Azpeitxi Jatetxea	4-3
Mongatxurak-Errotagain	0-1
Irubide Jatetxea-FAC	2-5
Usoa-Komando Piperrak	5-3
Txipiron-Urrutxurtu	5-3
Ion Autoak-Etengabe	1-2
Artusamak-La Juve	7-1
Top Cat Argandolas-Patatus	5-1
Buya-Pinturas Bergara	2-2
Uve Bikoitza-Arbe Kirolak	1-6
Moskis-Amozkibar	6-1
HHH-Guadalest	2-2
Aginaspí-Ufala	8-0
Eri Sirimiri-Zubixaurre Punk	6-2
Agirrebeña Jatetxea-Patxaran Team	0-2
Amilotx-Xurrupek	1-6
Igandekoak-Ezinleike	4-4
Bayer-Matxakategi	8-1

**Gaskide, S.L.**

ITURGINTZA OROKORRA  
 GASA ETA KALEFAKZIOA


☎ 943 76 49 00

HELBIDE BERRIA:  
 Aritzetako San Migel 8-10  
 BERGARA

**IRURAK PINTURAK O.E.**

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
 MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
 IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
 TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32



Irizar 2  
 ☎ 943 76 14 95

**JAUIA KIROLAK**

# Muru eta Berraondo Mexikora bidean

## Mundiala, urriaren 15etik 25era bitartean

### Iker Muruamendiaraz

eta Aritz Berraondo estatu-ko selekzioan izateko deitu zituen Iñaki Goikoetxea, selekzioko arduradunak. Uriaren 11n Mexikoko hiriburura abiatuko dira estatu-ko selekzioarekin, bertan jokatu den mundialean parte hartzeko asmoz. Txapelketa urriaren 15ean hasi eta 25ean amaituko da.

Guztira 56 pilotari abiatuko dira, gehienak euskaldunak. Ikerrek esan digunez, "A Coruñan Errege Kopa irabazi eta selekzioarako deitu zidaten. Jubenil mailan ere izan nintzen Espainiako txapeldun, baina Mexikoko Mundialean jokatzeko esperientzia berria da niretzat. Izugarri poztu nintzen bertara joateko eskaintza egin zidatenean. Aurreko



Ikerrek (ezkerrean) bere lehen mundiala du hau eta Aritzek bigarrena.

lorpenek zer ikusi handia izan dutela uste dut". Aritz, berriz, Buenos Aireseko 22 urtez azpikoentzako mundialean izan zen duela bi ur-

te eta, beraz, mundial bat zer den badaki. Bi pelotariak, bikoteka jokatu den eskuzko txapelketan arituko dira. B

## Elorregiko pilotalekuan orduak hartzeko deia

**Elorregiko** pilotalekuan aritzeko asmoa dutenei Udal Kirol Zerbitzuak zera jakinarazi nahi du: ordua erreserbatu beharko dute Udaltxean eta argia nahi izanez gero, izena eman beharko dute. Erreserbak urritik abendura luzatuko dira eta horrek, astero ordua izatea ekarriko du. Orduaren prezioa 400 pezetakoa da eta argiarena 200 pezetakoa. Informazio jaso edo izen emateak 943 77 91 67 telefonoan, goizetan.

## Igeriketa egokitua urrian

**Deba Garaiko** Mankomunitateko kirol zerbitzuek, Igeriketa Egokituko ikastaroak antolatuta dituzte. Igeriketa zerbitzu honen helburua, ezgaitasunaren ondorioz izan daitezkeen arazoak konpentsatzea da. Zerbitzua, ohiko kirol eta gorputz jarduerako eskaintzan parte hartzeko zailtasunak dituzten pertsona ezgaituei zuzenduta dago bereziki. Bi azpialde bereiztu dira: eskoletakoentzako igeriketa egokituko zerbitzua eta helduentzako. Ikastaroa urrian hasiko da eta 45 minutuko saio bat edo bi egitea aukeratu ahal izango da. Astean saio bakarra, 1.500 pza izango da hileko; eta bi saiotakoa 2.500 PTA.

## FUTBITOKO NESKEN LEHEN PARTIDUA ZAPATUAN

Astebukaeran jokatu du lehen partidua Bergarako Lagunak nesken talde federatuak, Gipuzkoako Emakumezkoen Areto Futbol txapelketan. Zestoa A taldearen kontra izango da Labegaraietako kiroldegian, zapatuan, arratsaldeko 17:00etan.



Federatu mailan arituko den nesken lehendabiziko taldea izango da aurtengoa.


**Iñigo Zaitegi, BKEko presidente ohia**

# “Presidente berriak esan zituenak min egin zigun”

**Presidente kargua hainbat bileratan hizpide izan ondoren, Carlos Arnaizek hartu zuen ardurara. Harrezkero Arnaizek berak egindako adierazpenek, zeresan handia sortu dute aurreko BKEko Zuzendaritza batzordea osatzen zutenen artean, kirol arduradunen artean eta baita Bergarako herritarren artean ere. Hori dela eta, BERRIGARA Iñigo Zaitegi presidente ohiarekin izan da hizketan.**

**G.** Zer izan zen atsekabe handiena sortu zizuena eta zer argitzea gustatuko litzazuke?

**E.** Bost urtean zehar, BKEren alde lan egin ondoren horrelako adierazpenak entzuteak min eta susto handia eman zigun. Hasiarako batzordean nahikoa jende geunden baina piskanaka-piskanaka bakar batzuk geratu ginen, era guztietako lana egiteko gainera. Uste dut hori ez dela kontutan hartu. Alde batetik, Arnaiz jaunak esan zuen bezala, BKEk zorretan jarraitzen du. Horrela da, baina azken batzar orokorrean esan eta erakutsi zen bezala, zor hori izugarri gutxitzea lortu genuen eta hori ez zen bere hitzen artean adierazi. Zenbaki guztiak txosten ofizialean daude jasota, hori edozeinen esku dago. Bergara Kirol Elkartearen zorrik gabe egotea oso zaila da. Horrelako elkarte apalak ez dira



Iñigo Zaitegi zuzendari ohien batzordean arituko da hemendik aurrera.

errentagarriak inondik inora eta etekinak lortzea oso zaila da. Berak zor izugarria zegoela esan zuen eta hori okerra da.

Duela hiru urtetik ordaindu gabe dauden fakturak dagokienez, guztiak daude ordainduta. Albaran batzuei dagokien faktura da

**“Arnaizek barkamen oharra kaleratzeko erabakia bihotzez hartu badu, eskertzekoa da”**

falta dena. Faktura hauek hainbat alditan eskatu dira eta eskatu diren arren, ez dizkigute bidali. Beste faktura batzuk ordaintzeke daude baina ez dira duela hiru urtekoak. Dena dela, hau guztia bere garaian azaldu zitzaion zuzendaritza berriari. Bulego eta aldagelako giltzen inguruan ere aritu zen eta horretan ere ez nago batere ados berak esandakoarekin. Giltzak dituzten ia guztiak zerikusia dute BKErekin. Gainera, Zuzendaritza batzordean horren jende gutxi izanda, ezin dira gauza guztiak ondo kontrolatu eta normala da zerbaitek ihes egitea.

**G.** Gaizki-ulertuak izan dira?

**E.** Guk argi eta garbi utzi genuen elkartearen egoera nolakoa zen eta zer nolako lana egin genuen zuzendaritza berriarekin izandako azken bileran. Ez zegoen ados gure lan egiteko erarekin, baina jende gutxiarekin ezin da miraririk egin. Ziurtatu dezakedana zera da: lan handia egin dugula eta, berez egin behar ez genituenak ere egin ditugula.

**G.** Arnaizek adierazi zuen bezala, egoera larrian dago BKE?

**E.** Bakoitzaren ikuspuntuetan arabera, “egoera larriak” esanahi ezberdinak izan ditzake. Guk, zuzendaritza hartu genuen unean baino askoz egoera hobean utzi dugu elkartea eta guretzat hori nahikoa da.

**G.** Zer iruditu zitzaizun joan zen astean Arnaizek BERRIGARAN idatzi zuen oharra?

**G.** Ondo iruditu zitzaidan baina hitz egin aurretik gurekin egon beharko zen. BERRIGARAN oharra kaleratzeko erabakia bihotzez hartu badu, eskertzekoa da.

Zorte hobereana opa diot eta ea bere proiektu guztiak BKEren etorkizuna ziurtatzen duten. Izugarri poztuko nintzateke horrela balitz. Horrek, guk egindako lana bertan behera ez gelditzea ekarriko luke. Bergarako futbol taldeek jarraitzen duten bitartean, egindako lanak merezi izan duela esan behar dut, futbolerako zale-tasun handia baitago. B

# MUSIKA HELDUENTZAT <sup>98</sup>/<sub>99</sub>

HIZKUNTZA  
MUSIKALERA SARRERA

*Gero edozein  
instrumentu  
ikasi ahal izateko!*



## *Kurtso hasiera urrian!*



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:

Bergarako Musika Eskola. Espoloia z/g. Tf. 943 76 57 80.  
Ordutegia, astelehenetik eguakitzera: 17:00-21:00.

## Eskulan ikastaroa

**Noiz:** urritik maiatzera arte

**Non:** Kartzela Zaharrear

**Ordutegia:** 15:30etatik 17:00etara

**Prezioa:** 3.500 PTA

Jarduneko bazkideek  
eta 4.000 gainontzekoek

**Matrikula epea:** urriaren 15a.

**Informazioa:** Jardun elkartean  
edo 943 76 08 19 / 943 76 36 61 telefonoetara deituz.



**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. Deitu 943 76 60 41 telefonora.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Pisua salgai Martokon. la amueblatua. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Aranerrek. 943 76 52 17.

**Errentan hartzeko**

Urritik aurrera pisua alokatuko genuke. 945 45 52 09 (Vanessa).

Pisua alokatu nahi dugu. 943 76 21 48 (Felix).

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 72 45 (Carmen).

Berrizteko dagoen baserri bat hartuko genuke. 943 79 48 09 (Itziar).

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktatu  
Deiak  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

**Saldu**

A. Fleming. 943 76 00 84 / 35 83.

Bi solairuko txabola ortuarekin. Prezio interesgarria. 943 76 07 87.

**Erosi**

5.000 m2ko lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. 943 76 70 24.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Edadetuak zaindu edo etxeko garbiketak egingo nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Goizez, etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. 943 76 46 07.

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

Etxeko lanak orduka egingo nituzke. 943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan haurrak

**Etxe konpartituak**

Neska behar da Donostian pisua osatzeko. 943 71 49 46.

Bergaran pisua osatzeko lagun bat behar da. 943 76 47 55.

Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pisua osatzeko. 943 77 13 77.

Donostian (Amara) bi lagun behar ditugu pisua konpartitzeko. Deitu 943 79 27 42 telefonora.

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

**Errentan emateko**

Garajea alokairuan

Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 943 76 56 91 telefonora.

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

**Errentan hartzeko**

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. Deitu 943 76 47 50 (Jabi) telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**Kizkur**  
Ilapaindegia  
Estetika  
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

BIZKOTIKOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

**BERGARA**

*Sozogintzan aintzindari.*

**Ezin atenditzeagatik, irekita dagoen taberna alokairuan Bergaran**

Tf. 943 76 20 19

**Esperientziadun zerbitzaria behar da asteburuetarako**

Tf. 943 76 47 23

**Super BM**

**Super BM supermerkatuak arrain-saltzaileak, harakinak eta txarkuteroak behar ditu.**

Interesatuok jarri lehenbailehen harremanetan Cristina Ochoarekin: 943 63 33 32.



zainduko nituzke. Espe-  
rirentzia. 943 76 03 76  
(Maite).

Neska batek edadetuak  
zaindu eta etxeko lanak  
egingo lituzke.  
943 76 09 33.

Etxeko lanak egin eta  
haurrak zainduko nituz-  
ke. 943 76 57 55.

Lanak ordenadorez  
(testuak zein grafikoak).  
943 76 61 24.

### Eskaerak

Etxeko lanak egiteko  
emakumea behar da.  
943 76 32 60.

Antzuolan neska bat  
behar da umeak zaindu  
eta etxeko lanetarako.  
943 76 71 06.

Emakumea behar da  
umeak zaintzeko eta  
etxeko lanetarako.  
943 76 48 27.

Neska edo andre eus-  
kalduna behar da egun  
osoan etxean lan egite-  
ko. 943 76 13 23.

### 5. IRAKASKUNTZA

### Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisi-

ka eta kimika klaseak  
ematen ditu.  
943 76 70 40.

OHO eta BBBko 3. mai-  
lara arteko klaseak.  
943 76 72 24 (Saioa).

Filologia ingelesean li-  
zentziatuak ingeles kla-  
seak ematen ditu.  
943 76 30 28 (Ana).

Soprano profesionalak  
kantu klaseak ematen  
ditu. 943 76 65 24.

Majisteritzako ikasleak  
OHO klaseak ematen  
ditu. 943 76 47 30  
(Aitziber).

OHO eta BBB klaseak.  
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.  
943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak  
OHOk klaseak ematen  
ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mai-  
lara arteko klaseak.  
943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE  
2. mailara arteko klase-  
ak. 943 76 24 31.

Enpresaritza klaseak.  
943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako  
klaseak. 943 76 42 08  
(Nere).

Majisteritzan diploma-  
tuak klaseak ematen di-  
tu. 943 76 10 17 (Rosa).

### 6. AUTOAK/MOTOAK

#### Saldu

Renault-9 kotxea (SS-V)  
salgai. Prezio interesga-  
rria. 943 76 25 31.

Rover 216 (NA-W).  
943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i  
(SS-AK). Aire egokitua.  
943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-  
W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai.  
1,10x1 m. Poliesterrez-  
ko tapa, ia berria.  
943 76 37 87.

Kotxea (SS-V) salgai.  
943 76 36 74.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea  
salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1400 kotxea  
(BI-BF) salgai. 94 658  
24 70 (Nerea).

### 7. ANIMALIAK

#### Saldu

Artzain-txakurrak eta

polizia-txakurrak salgai.  
943 76 52 21.

### 8. DENETARIK

#### Saldu

Calloy mendiko bizikle-  
ta. 943 78 70 58.

Bainurako manpara,  
1,55 m. 943 76 64 65.

Lur entziklopedia  
salgai. 943 76 02 79.

Bizikleta estatikoa  
salgai. Ia berria. 10.000  
pezeta. 943 76 07 88.

Hozkailua erosiko nuke.  
943 76 50 58 (Maritere).

Ohe bat (133x180)  
salgai. 943 76 11 11.

Flex markako litera bat  
(35.000 pezeta) eta te-  
lefonorako egurrezko  
mueblea (10.000) sal-  
gai. 943 79 57 64.

#### Erosi

Binilo txikiak eta  
handiak erosten ditut.  
Deitu 943 52 65 77.

#### Galdu

Katea galdu zait.  
943 77 91 16.



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

#### TORNULARIA

Durandaldea. 11618/4

#### SUKALDARIA

Fuerteventura. 12671/4

#### MEKANIKOA

Donostialdea. 12044/3

#### IDAZKARI TEKNIKOA

Deba Garaia. 12694/2

#### OBRAKO

TRESNERIAREN  
ERABILTZAILA

Donostialdea. 12049/2

#### SOFTWARE

TRESNERIAREN  
TEKNIKARIA

Urola Kosta. 12777/2

#### TROKELGILE-

MUNTATZAILA

Deba Garaia. 12183/3

#### PROGRAMATZAILA

Araba. 12784/5

#### ERREMENTARI-

SARRAILAGINA

Bilbo. 12302/3

#### ATE

INSTALATZAILA

Bilbo. 12815/5

#### MEKANIKARIA

Bilbo. 12467/4

#### KOMERTZIALA

Bilbo. 12816/2

#### ILEAPAINTZAILA

Bilbo. 12665/2

#### CNC

MUNTATZAILA

Tolosaldea. 12848/2

#### ILEAPAINTZAILA

Bilbo. 12849/1

#### SUKALDARIA

Araba. 12321/4

**Lan eskaintza hauetakoren bat  
interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

# Kiñu

*Kiñu eta Arco Irisen*

*“Errebelatu eta*

*Irabazi” promozioan*

*bergarar bezero hauek*

*izan dira sarituak:*

**ARCO  
IRIS**

**Astebururako bidaia Port  
Aventurara: Aitor Borobia**

**Astebururako bidaia  
Pirinioetara: Nuria Sanchez**

**Erlojuak:**  
Susana Fernandez  
Angel Fernandez  
Anaje Narbaiza  
Irene Arregi



**ARCO  
IRIS**

**Baloiak:**

Iker Dominguez  
Julen Jorge  
Joane Amasorrain  
Luisa Solozabal  
Andoni Badiola  
Miren Zaloña  
Joseba Iparragirre  
Iñaki Leizeaga

**Eta hainbat kamara, motxila...**



KIÑU. Barrenkalea 35. Tf. 943 76 58 05.

Jesus Bea Lalinde. Poesia idazlea

## "Gauzez idazten dut, inspiratzen naizenean"

**Jesus Bea Lalindek 17 urte zituenean ekin zion poesiak idazteari. Egin ahala, karpetetan gorde edota lagun eta familiartekoei ematen zizkien. Orduetik idatzitako poesia eta esaldi aukeratuekin liburua argitaratu berri du, "Adarnahel. Maximas y poesias" izenekoa (1998, Arrain Network). 44 orriko liburuska. 37 urte ditu.**

**G.** Nola doaz salmentak?

**E.** Oso ondo. Lehenengo edizioan 1.000 ale argitaratu dira eta ekainetik hona, dagoeneko 285 ale saldu ditunik. Logroño, Getxo eta Bilboko hiru liburudendan eta Etxeparen jarri dira salgai, baita beste zenbait liburutegitan ere. 500 pezeta balio du liburuak. Poesiak zailagoak dira ulertzen, baina maximak edo esaldiak asko gustatzen zaizkio jendeari.

**G.** Poesiei eta maximezi ez diezu titulorik jartzen. Zergatik?

**E.** Nahiago dut titulorik ez jartzea, horrela jendeak bere erara ulertzen dituelako; tituloak irakurlearen aurreiritzia baldintza egin dezake. Esaterako, soldaduskan idatzitako batzuk bildu ditut liburuan eta titulorik ez dutenez, bakoitzak bere erara interpretatu ditzake. Militarren aurka egindakoak dira, baina talde marginatu guztiak sentitu daitezke identifikatuta. Garai hartan idatzitakoak gogor samarrak dira.

**G.** Gaur egun joango zinateke soldaduskara?

**E.** Ezta pentsatu ere. Halere, orain dela hogeitau urte zeure burua intsumiso edo objetore aitortzea kartzelara joatea zen. Oso txarto pasatu nuen soldaduskan. Hutsaren hurrengoa zara, zenbaki bat besterik ez, eta ez zaituzte pertsona moduan baloratzen.

**G.** Adarnahel?

**E.** Goitizena da.

**G.** Poesia eta maximez gain beste ezer idatzi duzu?

**E.** Antzerki lan bat idatzia daukat, "La tercera sinfonía en pe y do de Fioretto Pedorrinni para Ano" izenburukoa. Obra satirikoa da. Bestalde, Altos Hornosen lanean jardun nuenean, bes-



Jesus Bea Lalindek bere lehenengo poesia eta maxima liburua argitaratu berri du.

te liburu txiki bat idatzi nuen, "Yo la última escoria del menú del día" izenekoa. Horretaz gain, gaztetan lagunekin oporretara Lloret del Mar-era joan nintzeneko oroitzenekin kontaktatzen dituen beste bat, "Demasiado calor para un día de verano" izenekoa. Guztiak gordeta ditut, baina argitaratu barik daude.

**G.** Gaiezi dagokienez, gizarte kritika egiten duzu poesia eta maximetan.

**E.** Era guztietakoak idazten ditut. Bizitzan zehar niri gertatutako kontuei buruzkoak, inguruan ikusten dudanari buruzkoak, gizarteko gaiak... Esaterako, liburuaren azalean jarri dudan esaldia: "Incluso las más grandes agonías provocan en los buitres manifestaciones de júbilo". Pentsarazi egiten duten

poesia eta esaldiak idazten ditut. Egia esan, liburua irakurri eta gero, pertsona kritikoa, ezkorra edo bizitzan zehar makina bat egurkada jasotakoa naizela ematen du, baina ez da horrela.

**G.** Noiz idazten duzu?

**E.** Normalean gauzez, denbora gehiago dudalako eta bakarrik egoten naizelako. Inspirazioa etortzen zaidanean idazten dut. Batzuetan ohean nagoela, ideia bat bururatzen zait eta idazten hasten naiz.

**G.** Poesiak eta esaldiak erregalaten dizkiezula lagunei jakin dugu.

**E.** Bai. Lehen, esaterako, zapiak oparitzen nituenean beti jartzen nuen esaldiren bat: "Deseo de corazón que estos pañuelos nunca te hagan falta para secar lágrimas de tristeza y que siempre los uses para secar lágrimas de... Felicidades! Liburuak eskaintzeko, berri, "Sembrando el campo de amoríos ningún miserable causará quebranto"; "En algunas bocas los piropos son insultos y en otras los insultos parecen piropos" edo "Hay quien lee para entretener a los ojos" bezalako esaldiak jartzen ditut. B

*"Poesiei ez dizkiet titulorik jartzen, irakurlearen aurreiritzia ez baldintzatzearen; jendeak bere erara ulertzeko"*

# Astebukaeretak jardueretan parte hartzeko aukera

## Kartzela Zaharrea, 11 urtetik gorakoentzat

**Astebukaerak Kartzela Zaharrea jolasean pasatzeko aukera emango die Jardunek 11 urtetik gorako neska-mutikoei.**

Astebukaera honetatik aurrera, zapatu eta domeketan arratsaldeko 4etatik 8etara, hainbat tailer, jolas, irteera eta beste era batzuetako jarduerak antolatuko dira; guztiak ere euskal giroan izango dira. Urtean zehar hiru tailer finko izango dira, zapatuetan 16:00etatik 18:00etara: eskulanak, irratia eta kitarra; horretaz gain, hizketan egiteko txokoa eta jolasak izango dira eta akanpada ere antolatuko da. Hasteko, astebukaera honetan futbolin, partxis, petanaka eta boleibol txapelketak izango dira.

Kartzela Zaharreko astebukaeretak jardueretan parte hartzeko, urte osorako txartela atera beharko da. Bi

argazki eta 3.200 PTA nahikoak dira txartela ateratzeko. Urrian zehar, hiru astetan, ez da txartelik beharko Kartzelara sartzeko. Iaz 108 txartel egin ziren, gehienak Aranzadi Ikastolako neska-mutikoenak. "Herriko ikastetxeetako gaztetxoak elkarrekin ibili daitezela da gure asmoa eta, horregatik, ikastetxe guztietako neska-mutikoak gonbidatu nahi ditugu Kartzelako astebukaeretak jardueretan parte hartzera" esan digu Nekane Gabilondok, Jarduneko dinamizatzaileak.

Bestalde, urtean zehar euskara errefortzuetan aritzen diren gaztetxoak ere animatu nahi dituzte. Kartzelako astebukaeretak jardueretan sei begirale arituko dira: Kepa Eguren, Nuria Barreiro, Miren Ostolaza, Saioa Ziarsolo eta Aizpea Uribe, Nekane Gabilondo arduradunarekin batera. B



11 urtetik gorako neska-mutikoei astebukaerak jolasean igarotzeko aukera dute Jardunen eskutik.

## Muniategiandikoetxearen lanak Berlingen ikusgai

**Manu** Muniategiandikoetxearen pintura lanak ikusgai izango dira urriaren 11ra arte Berlingo Art Forum ferian. Bergararren lanak, Galeria DVko beste bost artistenekin batera erakutsiko dira. Feria honetan mundu osoko 130 bat galeriak hartuko dute parte. Art Forum feria orain dela hiru urte sortu zen abanguardiarako artea bultzatzeko asmoz. Eguenean zabaldu zen feria 20.000 bat lagunek bisitatuko dute. Horretaz gain, Europa eta Amerikako 40 arte kritikoa eta komisario onenak eta 26 herrialdeetako mila bat kazetari bilduko dira.

## DM3: goi mailako power-pop australiarra Jam aretoan

**DM3 taldearen** pop indartsuarekin gozatzeko aukera izango da zapatu honetan, 22:30etan, Jam aretoan (1.000 PTA). Australiarrak power-pop berriaren adierazgarri nabarmenenetakoak dira, baina etiketa horretatik harantzago doa euren musika eta rock & roll, soul, rithm & blues, garage-punk edota 60ko hamarkadako pop eta psikodeliaren iturrietatik edaten dute. 1992an sortutako taldeko liderra, aurretik The Stems eta The Someloves taldeetan aritutako Dom Mariani da. Hiru disko kaleratu dituzte, azkena, "Rippled Soul" irten berria.

DM3 taldearen aurretik joteko Ross murtziarrak iragarrita zeuden, baina azkenean ez dira etorriko. Hauen ordezkariak Pürr donostiarrak izango dira.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Erdipurdiko. 2. Europako estatua. Tona. 3. Bazter nahaslea. Zaren hori. 4. Errepikatuz, fruitu mota. Sodioa. Berrogeita hamar. Jainko egiptoarra. 5. Bokala. Suge itsuak. 6. Mar-txa dut. VI. hilabete. 7. Sabela. Nitrogenoa. Zerbaki erromatarrak. 8. Adi! Burutazioa. 9. Gipuzkoako herria. Untziaren ezkerraldea. 10. Beldurti. Bokala. lodoa.

**Goitik behera**

1. Nazkagarriak. 2. Substantzia koipetsu. Hostoa. 3. Pinu mota. Erroak. 4. Apur. Hizki baten izena. Bokala. 5. Molusku maskorreko barne geruza. Kanpo. 6. Emakume izena. Nor, pluralean. Igarobide. 7. Haizen hori. Angolako hiriburua. 8. 1997an. Naizen hau. Emakume izena. 9. Potasioa. Bizkaiko herria. 10. Bururatuak. Euskal atzikia.


**Soluzioa**

10. Oruak Lan. 9. K. Erandio. 7. Hi. Luanda. 8. laz. Ni. Eba. 5. Nakarea. At. 6. Ana. Ak. Ibi. 3. Len. Zainak. 4. Amiri. Pe. A. 1. Nazkanteak. 2. Olio. Orra. Goitik behera 9. Aia. Ababor. 10. Kakati. A. I. 7. Tripa. DL. 8. Ernei. Ideia. 5. A. Ziraunak. 6. Noa. Ekain. 3. Ziktra. Zeu. 4. Ko. Na. L. Ra. 1. Nolanahiko. 2. Alemania. 1. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



**San Juan auzora bidean, zein etxeren ondoan dago ezkerreko iturria eta zein kaletan eskumakoa?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Panaderokua** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Aitziber Muguruza**rentzat izan da: Tartufo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Aitziberri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Antzuola / Iruñea** Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-B**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

- Hauetako zein ez da Ñake taldearen antzerki lan bat?  
A- Comicos muy peligrosos  
B- Pocos y mal avenidos  
C- El frorido pensil
- Bergara eta Antzuolako zenbat enpresa daude Ferroforma ferian?  
A- Bost  
B- Sei  
C- Zazpi
- Zein da Jesus Bea Lalindek idatzi duen lehen liburuaren izenburua?  
A- Adarnahel. Máximos y mínimos  
B- Asrahel. Poesías de Máximo  
C- Adarnahel. Máximas y poesías

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



SALBADOR 10 **ELGETA**  
Tf. 943 76 82 73

Gipuzkoako txapela zazpitan jantzi du eta aurten, laugarren aldiz, Euskal Herriko artzain txakur txapelduna izan da, "Artzai"-rekin. Oraindik ez du Oñatiko proban irabazterik lortu. Bergarako Udaleko mendiko brigadako langilea, 41 urte ditu.

**Meritoa, zurea ala txakurrarena?**

Biona, elkarrekin lan egin behar dugu eta.

**Txakurrak sariaren zatirik jasotzen du?**

Baietz uste dut, ondo egindako lana errekonozitzen zaio.

**Jateko, zer ematen diozu?**

Denetik: okela, ogia, konpuestoa...

**Zela entrenatzen duzu "Artzai"?**

Entrenatu gutxi; 15 egun lehenago lehaketako antzeko lanak eginez.

**Zein egoten da urduriago, zeu ala txakurra?**

Txakurra harrotu egiten da; ni, ostera, sekula baino nerbiosoago egon nintzen Oñatin.

**Probarik gustokoena?**

Oñatikoa. Zailena ere bai.

**Ezin izan duzu irabazi orain arte...**

Hiru aldiz bigarren geratu naiz. Irabazteko zortea ere behar...

**Zer iruditu zitzaizun "Euskal Herriak Euskal Artzaiari" monumentua?**

Ondo dago, bazen orduan artzainen lana aitortzekoa.

**Proban, abarkekin ala botekin?**

Abarkekin, baserritar jantzita nahiago.

**Zenbat txakur daukazu?**

Hiru eta txakurkume bat, emea.

**Zein arrazatakoak?**

Gorbea.

**Izan duzun txakurrik onena?**

"Mendi" eta honen alaba, "Nere". Zazpi

# Jesus M. Plazaola

txapel eman zizkidaten.

**Zenbat ardi daukazu baserrian?**

220 bat.

**Guztiak ezagutzen dituzu?**

Bai, guk elkar ezagutzen dugun moduan.

**Izenik jartzen diezu?**

Orain gutxiago; lehen bai.

**Azken erromantikoak zarete artzainak?**

Beharbada bai.

**Artzaina izateko bakartia izan beharra dago?**

Ez. Jaio egin behar da honetarako eta ofizioa maitatu.

**Baserrian zenbat gazta egiten dituzue urtean?**

1.600 bat.

**Gazta guztiak atsegin?**

Sikatzen hasitakoa nahiago.

**Aukeratu ezazu, baserriko lana ala udalekoa?**

Bietan gogor lan egin behar.

**Baserriko lanik gogorrena?**

Ez dela sekula bukatzen...

**Kalean biziko zinateke?**

Ez.

**Maritxu Kajoi festa atsegin duzu?**

Bai, baina aurten ezin izango naiz egon

Galiziarra noa eta. B



**LA PUERTA AL INGLES, S. L.**

**ALEMAN klaseak**

**hasi berrientzat**

- Martitzen eta eguenetan.
- 19:30etatik 21:30etara

**MATRIKULA ZABALIK!**

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01



## Maritxu Kajoira dotore jantzita

Urriko lehendabiziko eguakitzean Maritxu Kajoi festa ospatzen da Arrasaten. Bertako txikitero koadrila ezagun batek martxan jarritako jaia da eta dagoeneko Euskal Herri osoan ezagutzen dena. Inguruko herrietatik ere jende asko hurbiltzen da gaurko egunez Arrasatera. Bergararrak ere ezin falta, nola ez. Goiko argazia 1986 urtekoa da eta bertan Labegaraie-tako lagun koadrila bat ikus dezakezue. Tradizioak agintzen duen moduan, dotore-dotore jantzita joan ziren urte hartan Maritxu Kajoi ospatzera, korbata eta guzti. Argazia Zabala tabernan aterata dago eta pentsa dezakegu guz-

tiak ez zirela alboan ikusten den Dyane-6 kotxean Arrasatera joango... Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

**Goiko ilaran:** Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bizkai", Jose Ramon Etxeberria, Roman Zenitagoia, Patxi Urkiola, Ioseba Laskurain, Alex Madariaga eta Mikel Azkarate.

**Beheko ilaran:** Fernando Goikoetxea, Roberto Goikoetxea, Gorka Larrañaga, Alex Errasti, Martin Alberdi, Xabier Ugalde eta Jose Mari Larrañaga.

*Argazia: Patxi Urkiola*

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

# ORTO + LAGUN

## ORTOPEDIA

Zu ondo egotea nahi dugu

- Oinetako erosoak
- Lanerako zuekoak
- Neurrira egindako plantilla bereziak

Kontzeiño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34



# Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

# Igaro usaindegian *Udazkeneko* *Clarins 98* operazio berezia

*Urriaren 1etik 10erako promozioa*

## Erosi aurretik proba egin dezakezu

Eska ezazu IGAROn zure azalaren diagnostikoa eta zure aurpegirako tratamendu egokienaren kofrea emango dizute DOHAINIK.

Azal  
koipetsuendako  
berezia

Azal  
sensiblendako  
berezia



40 urtetik gorako  
emakumeak  
Azal normalak  
edo lehorrak

40 urtetik beherako  
emakumeak  
Azal normalak edo  
lehorrak



*Igaro*


IGARO

Barrenkalea 35, behea. Bergara.  
Telefona: 943 76 17 27.

# GRUPO **ARKAUZ**

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
- Betiko muntaketak

**FAGOR** 



Mitarte 3 • ARETXABALETA • Tf. / Faxe: 943 77 04 55

## altzariak

**ERAKUSKETA  
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA  
ETA APAINKETA**



**ZAPATU  
ARRATSALDEETAN  
ZABALIK!**

Araba etorbidea 20 • ARETXABALETA • Tf. / Faxe: 943 79 23 51

**Grupo Arkauzen** denak dira abantailak.  
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.  
**Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.**